

KONTROL MOZIOA

Kaleko Afari Solidarioen bosgarren urteurrenaren inguruan

Izar Hernando Ibero EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udaltzatzen Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udaltzatzen azter dadin. Mozioa 2025eko irailaren 15ean Pertsonen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

2020eko azaroan, zenbait donostiar afariak banatzen hasi ziren, pandemiaren ondoriozko konfinamendu testuinguruan, hirian kale egoeran zeuden eta haien elikadura beharrak ase ez zituzten pertsonen gauero afari beroak prestatuz. Lehenik Alde Zaharrean, ondoren Egian eta ostean Amara Berrin, pandemiaren testuinguruan behin-behineko izaeraz abiatu zen Kaleko Afari Solidarioak egitasmoak jada bost urte beteko ditu.

Azken Kale Gorrian zenbaketa arabera 413+ herritar ditugu kale egoeran Donostian. 2016ean 180 inguru ziren, egungo kopuruaren erdia baino gutxiago. Jakina da egoera hau arazo desberdinen konbinazioaren ondorioa dela: hego globaleko herrialdeen pobretzea, ezegonkortzea eta larrialdi klimatikoaren inpaktua, milaka pertsona migratzera behartuz; migrazio politikek iritsi berriak direnei ezartzen dizkieten traba administratiboak; etxebizitzaren eta, orokorrean, bizitzaren garestitzea, gizarteko hainbat sektoreen prekarizazioa areagotuz... beraz, kale egoeraren eta bazterkeriaren aferak Donostia gainditzeko du, eta soluzioek begirada luzea eskatzen dute ezinbestean.

Irakurketa integralak, baina, ezin gaitu alden gaur eta orain egin daitekeenetik. Esan bezala, KAS ekimena hasi zenetik hona kale egoeran hirian dagoen pertsona kopurua asko igo da; tamalez, ez dira modu berean hazi udalak kale egoeran dauden pertsonen eta, zehazki, kale egoeran dauden pertsonen elikadura beharrei bideratutako bitarteko kopurua. KAS egitasmoaren bidez gauero-gauero 200 afaritik gora banatzen dira, eta pertsona askok egunean

jasotzen duten lehen otordua izaten da. Boluntario talde batek egunero hainbeste afari bero prestatu eta banatzeko lana hartu beharrak, moduren batean, udalak elikadura beharrak asetzeko dituen zerbitzuez (edo hobe esanda, horien hutsuneez) hitz egiteko balio digu. Edozein kasutan, KAS egitasmoa desagertzeko helburuaz sortu zen, udalak bere gain hartu beharreko lana tarte batez egiteko. Hutsunea, baina, ez da desagertu, handitu baino.

Esan dugu egoera honek sakoneko soluzioak behar dituela. Gainera, argi dugu elikadura beharrak asetzeko udal zerbitzuak baliatu behar liratekeela kale egoeratik eta bazterkeriatik ateratzeko lagungarri izango diren prozesu integralak martxan jartzeko. Baina bitartean, ehunka pertsonak gosea pasatzen dute gure hirian, eta horietako batzuek, KAS ekimen boluntarioari esker abari beroa jan ahal izaten dute. Horregatik, behin-behinean, eta bestelako irtenbideak bilatu bitartean, udalaren partetik KAS ekimena zaindu eta lagundu beharrekoa dela uste dugu, haiekin elkarlana sustatzearekin batera. Izan ere, era boluntarioan eta izaera komunitarioaz, lanean aritzeko prest dagoen herritar sare zabala da KAS, afariak banatzeari esker, herritar desberdinen artean harremanak sortzeko gaitasuna izan duena.

KAS sare herritarrak elkarlanerako prestutasuna behin baino gehiagotan adierazi du, banaketetarako puntuak eta segurtasun neurriak udalarekin adosteko, esaterako. Era berean, banaketetarako materiala eta azpiegitura beharra ere mahai-gaineratu izan dute, milaka euroko gastua suposatzen diena urtero. Udalak, elkarlanerako gonbidapen eta eskari hau egungo egoerari berme eta segurtasun gehiago emateko aukera gisa ikusi behar lukeela uste dugu.

Hori horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako **KONTROL MOZIOA:**

- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari jar ditzala Kaleko Afari Solidarioen banaketetarako bermezko bitartekoak, materialari, segurtasunari eta espazioari dagokionez.
- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari Kaleko Afari Solidarioekin adostu ditzala (aurreko puntuan aipatutako) bitartekoak.



EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia

Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus-- www.donostia.ehbildu.eus



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari Kaleko Afari Solidarioak egitasmoaren “desagertzeko helburuari” jarraituz, elikadura beharrak asetzeko udal zerbitzuak handitu ditzala.

Donostian, 2025eko irailaren 19an

Izar Hernando Ibero

EH Bildu udal taldeko zinegotzia